

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Benigna Sarasketa Maiztegi

*Eibar, Gipuzkoa
(1922-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Eibarko Jardineta kalean jaio zen 1924. urtean eta han egin du bizi guztia. Jardineta kalean 4 etxe besterik ez zeuden garai hartan. Bere osaba Kruzetaneke zineko langilea zen, eta ondo gogoratzen ditu antzokia eta gerra aurreko pelikulak. Gerra garaian Bilbora eta Valentziara joan behar izan zuen bere familiarekin. Albericen pasa zituen 2 urte inguru, errepublikazaleen arma-fabriketan lanean, beste hainbat eibartarrekin batera.

Zintak

EIB-022

- **Proiektua:** Eibarko ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-11-28
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. 1922an Aldatze kalean jaioa

- **Erref:** EIB-022/001
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1922an jaio zen Eibarko Aldatzeko mojen alboko etxean. Abizenen inguruan hitz egiten du. Bi urterekin Jardineta auzora joan zen bizitzera; bertako ingurua deskribatzen du.

Transkripzioa

- Izena eta apellidua esango dostazu?
- Benigna Sarasketa Maiztegi.
- Eta noiz jaixotakua?
- Veintinueve de junio del veintidos.
- San Pedro egunian.

-Bai. Jaixa kendu eben eta oiñ ahaztuta ibiltzen gara.
-Eibarren jaixotakua?
-Bai-bai-bai.
-Sarasketa apellidua be Eibarkua.
-Bai. Eta Maiztegi plazentziatarra, nere aitxitxa Plazentziakua zan-ta.
-Eta Unzetatarrak be hangiak, ezta?
-Ez dakitt Unzetatarrak nunguak zian, nik hamentxe ezaututa.
-Eta nun jaixo ziñan zu?
-Ni Jardañetan. Ez, Jardañetan ez nintzan jaixo, Aldatzian euan etxe zahar bat. Gero gerra denporan erdixa jausi zan ta erdixakin bakarrik geldittu zan. Baiña goixan, goixan. Merzedarixak ez, Aldatzeko monjak daozen zerian han behian; zu ez zara akordatzen baiña han euan itxurria ta alberkia, alberkia, ta hantxe euan etxia, da gero gerran erdixa jausi zan eta erdixakin bakarrik egon zan. Baiña urte bikin joan nintzan Jardañetara eta Jardañetan bizi naiz.
-Han bizi zara oindio?
-Bai.
-Orduan ondo ezautuko dozu inguru guzti hori.
-Bai, ez dot ba ezautuko?
-Zelakua zan? Jaixo ziñanian eta gerra aurrian Jardañak zelakuak zian?
-Ene ba. Pentsaizu, egongo zian, orduan numeruak diferentiak zian. “El uno” zan Bolunburuko etxiak “el uno”. Gero zian bat, bi, hiru, lau etxe. Lau etxe bakarrik. Eta gerra ostian in zian beste danak.
-Ta etxiak ziran, han errebueltan daren etxiak zian?
-Bai. (...). Eskuman dauan etxia erre ein zan. Ha zan zaharra, lelengua, lelengua, baiña erre in zan da gero barrixa ei(n) eben. Ta handik segiduan beste pegoria, bestia ta bestia. Ta ezkerrian beste bat. Eta ez euan besterik. Gero txaleta. Alemanak eken txaleta, oiñ Arrietanekuak daken lekuan, alemanak. Eta bestekaldian dao beste txalet bat; bueno, txaleta bibienda askokin, baiña hantxe dao zerian, eta besteik ez zan Jardañetan, bestiak ortuak.
-Ortuak, e?
-Ortuak.
-Eta Merzedarixak-eta daren tokixan-eta?
-Monjak. Harek monjak zian harek.
-Baiña ha bazeuan?
-Ez, etxiak ez-ez-ez-ez. Ortuak, monjen ortuak. San Agustin, han euan monjen konbentua eta elixia ta monjek eken Musategittik tunel zer batekin, tunela ez, zubitxo batekin, eta beste alde guzti-guztia, oin Merzedarixak daozen lekuan dan-dana zan monjen ortua.
-Hara goraiño heltzen zan orduan?
-Bai, bai, haraiño.
-Mariangelatik...
-Haraiñok, haraiñok, goraiñok, goraiñok. Monjen ortuak zian haraiñotxek, Aldatzeraiñok.

2. Tuberkulosoentzat ospitalea

- **Erref:** EIB-022/002
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

<p>"Jardín de Convalecientes" deituriko gaixoentzako erresidentzia aipatzen du. Tuberkulosia zuen jende ugari zegoen eta haiantzako ospitale berezia zegoen.</p>

Transkripzioa

-Hau eitten ezagutu zendun zuk? Ospittala-edo bazeuan han...

-Ez, ez, ez, ez! Ospittala ez, oiñ dao residentzia, ha zan ospittala, beheko residentzia.

-Legarren?

-Legarren, han ez euan. A!, ez! Baiña han egon zan "Jardín de Convalecientes". "Jardín de Convalecientes", ipiñi eben han Don Ziriako medikuak eta zerak ipiñi eben "Jardín de Convalecientes" ipiñi eben han. Ta gaixuak zerera joaten zian hara eta eozen butakak eta zerak eta gaiñian euen terraza bat. Eta eskolia gero ei(n) eskuen guri hantxe bertan, oiñ institutua dauen lekuan. Eta hantxe, ha euan "Jardín de Convalecientes".

-Orduan Eibarko gaixuak eta ia pixkat osatzen hasittakuak...

-Bai, hantxe, haraxe joaten zian. Bai hantxe eta euki (...) tunbonak etaratzeko-eta. Orduan tuberkuloso asko egoten zan-da. Gero tuberkuloso..., oiñ Eibarko residentzia behian, haren onduan ein eben "Hospital para los tuberculosos". Hantxe egon zan, bai. Oiñ dauen ospittala ta oin beste residentzia goikua, beheara, ospittalan onduan egon zan, "Hospital antituberculoso". Asko euan orduan tuberkulosisa. Asko euazen.

3. Eskolan neskak eta mutilak banatuta

- **Erref:** EIB-022/003
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak Jardinetan auzoan egiten zituzten. Eskolak nola egin zituzten eta beraiek eskolara hasi zirenekoa aipatzen ditu. Eskolako irakasle ezberdinak izendatzen ditu. Eskolan, neskak bakarrik egoten ziren goiko pisuan. Eskola atarian pilotan aritzen ziren.

Transkripzioa

-Zuek Jardinetan-eta egiten zenduen jolasian?

-Bueno! Kalera joaten giñanian ustez zerera goiazela!

-Kapitalera?

-Bai, bai, bai. Jardinetan beti. Gure jolastia hantxe zan. Ta gero eskolia ta danak pe hantxe izan zian-ta.

-Institutua egiten ezagutuko zenduan orduan?

-Bai, ez dot ba... Eskolak eitten be akordatzen nai ni. Behian lehenao, han eskolak eiñ baiño lehenao, alhondigia euan, oin Banko Gipuzkuanua dauan lekuan alhondigia zan han. Eta hantxe atzeko zerian eskolako zerak eozen, eskolia ein baiño lehen. Hantxe behian egon giñan. Eta gero eskolia akordatzen naiz ni noiz ei'ben.

-Alhondigan Doña Paca eta zeintzuk?
 -Bai, bai. Han pixkat harutzatxua Doña Paca eta Doña Maria eta. Ta zeran ama, Markiegin ama eta harek zian maistrak.
 -Eta zuri tokau jatzun orduan...
 -Gora. Gero gora. Eskola berrixak geuk inagurau genduzen.
 -Gogoratzen dozu eguna, inaguraziñua-ta?
 -Bueno. Akordatzen nai gaiñera arbolak pe sartu genduzen, pentsaizu zela daozen oiñ arbolak, harek arbolak geuk -bueno, nik ez dakit, ez nai akordatzen neu prezisamente nintzan-, baiña orduantxe ipiñi zian arbolak eta danak, eta pentsaizu zelan daozen harek arbolak. Pentsaizu zenbat urte dakadazen.
 -"Día del Árbol"-eta eitten zan orduan?
 -Bai, bai. Baiña orduan bai ba, ha itteko arbolak ipiñi zian-ta.
 -Eskola hori izango zan orduan modernua.
 -Honbre! Goixan, lelengo planta bikua zan. Lelengo plantan zian mutillak eta bigarrego plantan zian neskak. Eta han eozen parbuluak. Parbuluak Doña Paca ez, Doña Paca behekoa zan. Hara gora ez zan joan. Baiña parbuluak. Da gero euan bat, bi... Doña Paca. Ez, Doña Paca ez, Doña Paca behekoa zan. Ez nai akordatzen parbuluetan zein zan maistría. Baiña gero lelungan zan Doña Maria; andra... ha beheko doña Maria ez, beste Doña Maria bat. Ta gero Pako Markiegin ama, Doña Catalina, eta gero etorri zan Doña Petra Txueka, etorri zan, azkenengo kursua haretzek emote(n) eskun, Doña Petra Txuekak.
 -Eta? Neskak bakarrik, ez?
 -Neskak, neskak, neskak. Mutillak beheko pisuan.
 -Eta? Ze rekuerto dakazu? Ondo pasatzen zenduen?
 -Ederto! Pelotan, esku-pelotan eta danian itten genduan. Gero jardiñ handixa daka han aurrian. Leku ederra gekan guk han ibiltzeko, ederra. Bai-bai-bai-bai. Ta pelotan itten genduan paretan kontran eta danian. Ez euan han oin esaten dan moduan golpiak-eta; nik sekula be ez dot entzun; sekula be ez dot entzun.
 -Maistrak eta gogorak izango zian?
 -Bai, Doña Petra gogorra zan eta bihar be bai, e. On-on-ona zan, maistrarik Eibarren euan maistrarik onena zan. Doña Petra Txueka. Baiña estrordinarixia zan, e, estrordinarixia.
 -Eta gitxi gora behera noiz inaugurau zan hau eskola barrixa, zuk zenbat urte eukiko zenduzen, zortzi-hamar bat urte? Republikan izan zan edo...?
 -Primo de Rivera euki eban izena, Escuelas Primo de Rivera euki eban izena.
 -Orduan lehenago igual.
 -Bai, bai. Ez dakitt. Primo(s) de Rivera be euki eban harek izena. Ez dakit noiz izango zan.
 -Orduan beintiotxuan-edo izan leike.
 -Ez dakitt, ez dakitt.

4. Eibarren frontea zegoela, Valentziara bizitzera

- **Erref:** EIB-022/004
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasi zenean, Benignak 14 urte zituen. Gogoan du eskolatik atera eta Bilbora nola joan zen; handik Valentziara joan behar izan zuten. Zortzi hilabetez egon zen frontea Eibarren. Aitak Bilbon lan egin zuen, eta gerora, handik alde egin behar izan zuten.

Transkripzioa

-Gerriak urten ebanian nik nekazen hamalau urte orduantxe kunpliduta. Ni San Pedro egunekua naiz eta dieziotxo de julion hasi zan eta nik hamalau urte justo orduantxe nekazen. Ta ez dakit zenbat...

-Eskolia amaittuta zuk ia?

-Orduantxe amaitzeko. Nik eskolatik urten neban. Eskolan neuan orduan, todabia, oindiok eskolan.

-Bai, e, julixuan?

-Bai, bai, eskolatik joan nintzan ni, eskolatik joan nintzan Bilboraiño eta gero bueltaka-bueltaka-bueltaka Valenziaraiñok.

-Akordatzen jatzu eguna zelan izan zan?

-Ez nai ba akordauko, gerria-ta ez nai ba akordauko? Ta gero, klaro, frentia honutz-honutz etorren da Eibartik joan bihar izan... Zortzi hillabetian egon zan gero frentia gero Eibarren, e! Ta gu ez, gu Bilbon.

-Zuek gerria hasi eta ia...

-Bilbora. Bai, bai, eske honutz etorren gerria ta. Bilbora joan giñan. Eta gero Bilbon zera euan, industria ipiñi eben Bilbon eta nere aitta-ta biharrian han eta hantxe egon giñan. Eta gero gerria aurrerao joan zanian industria joan zan Cabezón de la Sal, Asturiasera erua'eben; eta gero gerria gorutz doiala ipiñi eben. Frantziatik bueltia hartu, osea zerera urten, Frantziatik bueltia hartu eta Bartzelonatik Valentziara.

5. Alberic-en (Valentzia) lantegia gerra garaian

- **Erref:** EIB-022/005
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Erefuxiatuak kontzentrazio-esparrura joaten ziren, baina Benigna eta etxeoak Alberic-era (Valentzia) joan ziren, aitak bere industria jartzeko aukera izan baitzuen. Beraien lantegian, armak egiten zituzten, eta langile gehienak eibartarrak ziren. Orduko nagusiak izendatzen ditu.

Transkripzioa

--Eta Valenzian armau zan atzera, hiru industria armau zian, eta kasik danak eibartarrak zian.

-Zela zan?

-Alberique, Alginet eta Buñol zian.

-Eta han egon ziñazien zuek?

-Bai. Nere aitta, hiru, lau gizon, gu joan giñen zer espezialakin, osea, refujiauak Frantziara ailegatzen zianian "campo de consentrasion" edo hantxe zertzen eben, baiña guk lauk euki eban gure aittak zer espeziala zera, industria bestekaldian zertzeko hasteko, armerixa ipintzeko. Gu ez

giñan geldittu Frantzian, bakarrik gau bat egin genduan, gero Frantzia pasau dana ta Barzeloraiño joan eta gero Barzelonatik Valenziara.

-Eta Buñolen?

-Alberiquen. Lelengo egon giñan Alberiquen. Eibartarrak lelengo formau zian Alberiquen, eta gero Alberiquetik Alginet-era hogei bat kilometro-edo eozen, da nere aitta bialdu eben atzera Alberiquetik Alginetera atzera industria montatzera.

-Orduan gerran inportantia zan armagiñak-eta.

-Bai. Gure zerak eitte'eban pistolak, gure fabrikiak eitte'eban pistola. Ta Alberiquekuak eztakitt ze itte'eben, metralleta-edo, eta Buñolen ez dakitt ze itten zan, ez nai akordatzen Buñolen ze itten zan.

-Eta hango bihargiñak asko ta asko eibartarrak?

-Bai, danak, danak, maiorixia eibartarra. Eibartarra edo hamengotxia. Hamengotxia maiorixia.

-Eskola Armerixako jentia?

-Bai, bai, bai, bai. Ibarguren izan zan Alberiqueko direktoria, Jose Ibarguren izan zan Alberiqueko direktoria, eta guk ekagun direktoria Manuel Domec Alberich zan. Eibarren bizi zana, e. Eta bere aitta izan zan "el jefe de talleres" han ta...

6. Gerra garaian Valentziara ihesi

- **Erref:** EIB-022/006
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:12:12. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian Valentzian bizitzen egon zireneko bizimodua, etxejabea eta ingurua deskribatzen ditu. 15 urte zituen orduan eta lantegiko ofizinan egiten zuen lan. Nazionalek Valentzia hartu zutenean, gerra amaitu zen eta Eibarrera bueltatu ziren.

Transkripzioa

-Eta nun bizi ziñazien?

-Ba etxe bat. Rekisau eben etxe... ekazen lekuan eta guri tokau jakun; ta andria bakarrik, alarguna zan eta seme bat bakarrik ekan eta edadekua zekan eta zerian euan...

-Frentian?

-Frentian ez, Prieton eskoltan. Ta zan jauntxua, herriko jauntxua zan. Baiña lekua ekan eta ba hantxe. Eta hantxe (...) bihar izan giñan, berakin.

-(...).

-Ez, danak. Bi be bai. "Treinta y seis"ian zertu zan eta "treinta y siete", pare bat urte Valenzian.

-Eta zer moduzkoua zan hango bizimodua?

-Guretako normala. Gu joan giñanian; badakizu, gerran gauza asko pasau zian, hamenguak eta hanguk eta hamen be eta han be joan zianian ba euren zerak... danak egon zian-ta. Horrek danak gauza guztiok pasauta euazen gu jua giñanian, eta osea zan kalma; bai, bakea. Eta gero pasau zan obretan, obrak eta gauzak-eta, jentia kolokau ein zan biharrian, kolokau zan fabrikan, eta herrixa jaso in zan, eta guri raru pentsatzen jatzun, egunero plazan, elixian plazan aurrian obreruak joaten zian elixian aurrian, ezta? eta zerak, ortuak eta gauzak ekezen zerak, haren

enkargauak juaten zian plazara-ta, ta hau ta hau ta hau ta hau, eta egunero... Eta guk esaten genduan: “baiña ze-ze, hau jentiau ze, zelan dok?”, eta ba holaxe. Eta apartatzen zittuen eta ba ez ebena apartatzen ba bihar barik. Eta gero asko ba kolokau zan. Obrak barrixak in zian, nabe barrixak eta gauzak in zian fabrikan-ta, ba bihar asko euki eben. Ta gero han andrak pe bai, sekula ez eben andrak han biharrik eiñ, baiña taladruetan eta gauza askotan sartu zan andria be.

-Eta zuek umiok ze bizimodu zekazuen?

-Ni umia? Hamabost urte nekazen da ni ofiziñan neuan.

-Biharrian zenden?

-Ofiziñan. Ni ofiziñan neuan eta nere anai gaztia-ta ba eskolan-ta ba.

Normala, ustez e, ez zan ez genduan esturaik bape pasau. Estuasunik bape ez genduan.

- Umiendako ze zan, gerria zeuanik...?

-Ezebez, ezebez. Sirenia joten eban behiñ edo behiñ, baiña gure aldian ez zan ez bonbardeorik ez. Bilbon bai ikusi genduan, Bilbon ikusi genduan bonbardeuak eta refugixura joan biharra eta horrek bai, baiña Valenzian ez, bapez. Eta gero gerria akabau zanian be ez zan egon “Ba zuek kontrakuak zarie”-edo. Ez, ez. Han jendia konpletamente normala zela zan eta han herrixak, jaso ein zan herrixa, biharra eken-ta, biharra eken-ta. Ez, ez zan egon bape. Etxera etortzerako baiña ez detenziñorik-edo, ez ezebez, ezebez.

-Valentziatik zuzenian Eibarrera?

-Eibarrera.

-Valenzia hartu zebeñian nazionalak...

-Gerria akabau zan, akabau zan gerria.

-Beste batzuk Barzelonara-ta...

-Ez, Barzelonara... Teruel hartu ebenian, Barzelona ta Valenzia erdibittu eiñ eban, erdibittu eiñ zan, Valenzia eta Barzelona, baiña ia hartzen-hartzen bapez, bapez. Eta ia Valenzia eta Barzelona... Barzelonakuak Franzia jua zian baiña gu Valenziakuak ezin jua.

7. Valentziatik Eibarrera bueltan

- **Erref:** EIB-022/007
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:15:54. **Bukatu:** 00:17:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Eibarrera bueltatu zirenean eskoletan atxilotuta egon ziren gau batez. Trenez bueltatu ziren. Eibar apurtuta zegoen; beraien bizilekua aipatzen du.

Transkripzioa

-Eta Eibarrera bueltau ziñazienian zela topau zenduen?

-Estaziñora aillegau giñanian zereko Jardinetako eskoletara etxera joan barik, danak eskoletara. “Detenidos allí” joan giñan. Etxera etorri giñanian, ikusi genduanian: “ze pasatzen dok?” Kontrakuak hara.

-Trenian etorri ziñazien guztiak zuzenian...

-Ene, egun bi edo hiru edo ein genduzen trenian. “Mercancías de esos que...”, ene, ene!

-Eibarrera estaziñora heldu eta danok...

-Danok han gora. Etxera barik gora. Gero ez dakit gau bat edo ze ein genduan eta gero ba batzuk... Guri, neri ez jatan tokau detenidurik eta ezer-ta. Gero etxera.

-Eta Eibar zelan topau zenduen?

-Buu, pentsa eizu, dana apurtuta, dana apurtuta.

-Ezer ez zan geldittuko. Elixia ta beste zeoze inguruan, ez?

-Jardiñetan dana. Jardiñetan dana.

-Hemen behekaldean?

-Ezebez, ezebez. Horrek behekuok ezebez, horrek behekuak ezebez. "Así es que" horrek obra guztiok eta danok danok ikusi douz.

-Berriz Eibar barrixa eitten.

-Dana, barrixa eitten dana.

-Eta Jardiñetan zeuen etxia ondo zeuan?

-Bai, bai.

-Ez zenduen problemarik euki?

-Ez, ez. Baiña gure etxia, "por ejemplo" gu giñan inkilinuak zeranak, Bolunburunak, eta gure etxia euan alkilauta, euan, eta orduan nere tia bat, bere aman anai bat euan, bizi zan beste pegoran eta hantxe egon giñan denporada baten eta gero Bolunburuk jaso ein eban etxia, beste pisu bat jaso etsan eta emon eskun atzera goiko pisua. Eta atzera be beti hantxe egon giñan.

8. Umetako jolasak: txirikila, tortolosak eta kanikak

- **Erref:** EIB-022/008
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan "txirikiletan", "tortoloxetan" eta kaniketan jolasten zuten, besteak beste. Jokoen nondik norakoa azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta gerra aurreko kontuetara bueltauta, zeuen umetako jolasak-eta?

-Neskak eta mutillak danok junto.

-Zeintzuk izaten zian jolasak?

-Danak. Ba mutillen moduan. Txirikillakin, txirikilla ta danak, tortolosak-eta, kanikak-eta, estanpak paretian-ta. Baiña neska ta mutil, e.

-Bai e?

-Bai-ba-bai. Neska ta mutil.

-Kaniketan zela egiten zenduen? Potxolua...

-Potxolua eñ eta gero urriñetik bota potxolora eta zeñek sartze'eban ba bestiari hartu, halaxe itten genduan. Eta estanpetan ba paretan kontran itten genduan. Gero (buelta ematen). Guk ez, guk paretan kontran itten genduan. Paretan ipiñi nora jausten zan, ikusi nun euan eta harutzao edo honutzao ipiñi ta hiltzen bazendun batu-ta.

-Zeuretako.

-Bai. Beti jolasian. Eskolatik urten, merienda txokolatua ta ogixa hartu ta kalera. Ta jolastera, jolastera.

-Jolastu Jardiñetan?

-Bertan, bertan, bertan, bertan Jardiñetan.

-Eta esan dozu txirikiletan be bai.

-Bai, txirikilla.
-Zela eitten zan txirikilletan?
-Palo bat, palo haundi bat, ta txirikilla zan palo txiki bat baiña punta bixak zorroztuta, punta bixak zorroztuta, ta palo haundixakin jotzen zenduan puntan eta salto eitten eban txirikillak, salto itten eban eta gero ta!, jotzen zenduan paluakin eta zeñek urriñago botatze'eban ba...
-Harek irabazi. Eta tortolosak be aittatu dittuzu.
-Baitta. Tortolosak pe bai, zeranak, "de oveja, de carnero".
-Adarixanak?
-Adarixanak haundixauak izaten zian.
-Hanketako zeoze.
-Bai-bai. "La rótula", pentsatzen dot rotulia zala. Ta gero pinttau ta itten genduan eta ipini-tta lau...
-(...)
Bai. Gaiñera "asajiak" esaten (zizkixon) gure amamak eta guk tortolosak esaten genduan baiña. "Asajetan eitten dou", gure amak esate'eban. Eta zan, alde batetan ekan karia eta gero bueltan atzia eta gero buelta bat; ta lau-lau-lau punta eukitzen zittuan. Oiñ ez nai akordatzen baiña lau punta eukitzen zittuan zerak.
-Eta zela jolasten zan, danak bardiñ ipintzera?
-Ez dakitt zela itten genduan. Danak bota, baiña eskuakin gero eskuakin itten genduan buelta-buelta emon-ta. Oiñ gehixegi ez nai akordatzen, baiña eskuakin emuten genduan buelta edo lisora edo ezkiñara-edo ez dakitt. Seguru-seguru ez dakitt zelán zan.

9. Zinera ordaindu gabe osabaren bitartez

- **Erref:** EIB-022/009
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:25:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Zineko makinista Benignaren osaba zen eta harekin trikimailuan ordaindu gabe sartzen zen barrura. Igandeetan izaten zen zinea eta anaien lagunekin joaten zen. Zinea eta bertako arduraduna deskribatzen ditu. Gerra-garaian auzoko batek soilik zuen irratia eta harengana joaten ziren entzutera. Pelikula guztiak negar egitekoak izaten ziren. Gerra aurrean baziren zinema gehiago ere eta haien aipamena egiten du.</p>

Transkripzioa

-Eta bestela beste afiziño bat izango zan zinia, ez?
-Eneee! Ta nik gratis zela nekan.
-Bai, e?
-Bai ba. Nere tio zan makinistia, zeran, Kruzetan laguna, eta bera zan makinistia.
-Zine Kruzetana?
-Zine Kruzetana. Da porterua kanbixatze'eban esate'zan: "Bueno, hartiñ, autso"; tabako zer bat emoten estan da: "juaten haizenanien porterixara esaixon porteruari: 'tiori eruan bihar detsat paketia', eta orduan jakingo jon, hurrengorako ez deun esango ezer."
-Eta?

-Ba halaxe (egitten) genduan.
-Eta domekatan izango zan zinia, ala noiz zan?
-Domeka baiño gehixao izango zan, ez dakit seguru. Da nere anaia, nik nekan anaia haundixaua, nausixaua, eta ni gaztiaua, da nere anaian lagunekin joaten nitzan ni zinera. Ni txikixa, baiñan holan, bueno, zu ez zara akordauko, holan zan zinia, ezta? ta euan sillak, lelengo sillak, eta gero pixkat holan subida pixkatekin anfiteatrua. Holan bueltan ez, e, atzian, atzian pixkatekin. Eta gero holan mahaixa edo pixkat gehitxua zer bat, separaziño bat euan da gallinerua atzian. Eta nere anaia hartzen zan lagunekin gallineruan, da nik azkenengo filan zerakin, anfiteatruakin hantxe atzian.
-Eta nundik sartzen zan zinera?
-Oin pegoria dauan lekuan, handitxik.
-Estaziño Kaletik.
-Estaziño Kaletik. Hantxe pegoria. Ointxe be ikusten dot nik. Hantxe ezkerrian euan takillia eta holan eskuman euan zera entrada, entrada euan. Da, eneee!, Kruzeta gaiztuaua zan! Koskorrekuak eta emuten zittuan. Bai ba, zaratia, armatzen genduan gaztiak eta igual koxkorrekua.
-Zelan zekan izena?
-Ez dakit zelan zan. Kruzeta... Izenak ahaztu itten jakuz eta ointxe... Periko! Periko zan.
-Eta gogorra?
-Gogorra gorrora zan, ene! Jaleua armatzen genduanian, ha agertzen zanian, bueno! Zuzen ibilli bihar.
-Eta, orduan zinera joatia izango zan sekulakua. Orduan telebisiñorik eta holakorik...
-Ez, ezebez, pentsau bez. Radixorik be ez. Radixuak be gerria urten ebanian etxe baten, gure bezindadian etxe baten euan radixua; da haraxe joaten giñan zerak entzutzero.
-Orduan zinia lujo bat izango zan.
-Neretako ez, libre nekan-ta.
-Baiña gustora.
-Honbre, klaro.
-Zelakuak izaten zian orduan (pelikulak)?
-Jose Mogicanak-eta. Zan kantore bat, famosua zan Jose Mogica ta. Bueno! Ziniak izaten zian danak negar ittekuak-eta.
-Dramoiak?
-Dramoiak.
- Lina Yedros eta José Mogica-ta. Enee! Danak negar eittekuak, danak, danak.
-Baiña gustora.
-Honbre, halaxe zian-ta, halaxe.
-Eta sartu sartzen zan Estaziño Kaletik.
-Estaziño Kaletik. Eta gero atzeko ate..., ez dakit zu fijatzen zaran.
-Garajiak?
-Garajiak-edo. Han euan ate bat urtetzeko. Osea ke, sartzen ziñan, eta azkenengo euazen "los servicios" ezkerretan, eta haren onduan euan ate bat eta urtetzen zan beste kalera, zerera Pageira. Bueno ha seguramente izango zan "como de socorro"-edo izango zan. Baiña handitxik pe urtetzen zan.
-Eta sartu eta pantaillia ze zeuan?
-Aurrian. Sartu ta dana pasau ta aurrian. Aurrian euan pantaillia.
-Eta goixan eta gallinerua esan dozu.
-Ez, ez, ez, goixan ez, atzian, atzian.
-Bazeren (...)
-Ez, ez, ez. Hori Rialtuak ekan. Kruzetak ez, ez ekan.

-Beste zine batzuk be bazeren Eibarren, ezta? Gerra aurrian bertan be Salon Teatrua.
-Salon Teatrua be bai, baiña gu Jardinetakuak giñan eta Jardinetan gu. Eta esaten ´tsut, ni umia nintzan zeran ba beti gerraostera arte Untzara Untzara plazara urten be ez igual. Urten be ez igual.
-Eta ezagutu zenduan Kiputxaneko zinia?
-Bueno ikusi, ez dakit sekula be egon naizen baiña badakit Isasi goixan euan Kiputxaneko zinia. Baiña keba!, guretako ez zan ha, ha zan beste herri bat. Pentsau be ez.

10. Eibarren "goikoak" eta "behekoak"

- **Erref:** EIB-022/010
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:26:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Eibarren "goikoak" eta "behekoak" desberdintzen ziren. Amak eta neskameak Eibarko antzinako kontu ugari kontatzen zizkieten.

Transkripzioa

-Eibarren bazeren holan pixkat behekaldekuak eta...
-Bai, bai, Bi, goikuak eta behekuak, bai, bai, bai. Goitarrak eta behetarrak. Beti, beti. Goitarrak eta behetarrak.
-Nun erdibitzen zan Eibar?
-Elixan, elixan.
-Mariangelatik gorakuak eta...
-Berakuak. Eta nere ama, nere amak hartu zittuan ba larogeta hamabost urte. Osea ke, haren gauzak, Eibarko gauzak, antxiñako, antxiñako, antxiñakuak danak, danak, gure amak beti entzutzen. Ekagun etxian gero Eibarko andra bat, alargun geldittu zan eta etortzen zan, interina etortzen zan gure etxera, da kontatzen zittuen euren gauzak, osea ke berez nere sasoiakuak eta euren sasoiakuak eta danak nekixezen nik. Oiñ ahaztu jataz danak, baiña.
-Ze kontatzen zeben?
-Ba danak. Fulanori..., a bai, harek suzedidutakua eukiko jonan-da.

11. Etxean eta lagunartean hika

- **Erref:** EIB-022/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:26:17. **Bukatu:** 00:27:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Amarekin, anaiekin eta baita lagunartean ere euskaraz eta hika hitz egiten zuen. Neskek erdararako joera handiagoa zuten.</p>

12. San Pedro eta San Juan jaiak

- **Erref:** EIB-022/012
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:27:47. **Bukatu:** 00:32:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Eibarko gerra ondorengo bere auzoko San Pedro jaiak aipatzen ditu. Euskal giroa egoten zen: bertsolariak, azoka, etab. San Juanetan Untzaga plazako kioskoan jendeak kantuan egiten zuen. San Juan kantua abesten du. San Juan surik ez zen behin ere egiten. San Juan egunean dantza eta "tiobiboak" izaten ziren.</p>

13. Neska izatearren, etxeko lanetan lagundu behar

- **Erref:** EIB-022/013
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:32:05. **Bukatu:** 00:34:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Bi anaia zituen eta euretako bat Realean ibili zen futboleant. Etxeko lanak Benignari tokatzen zitzaizkion. Eskolara joan aurretik plazara joaten zen.</p>

14. Lurra garbitzen, espartzuz eta belauniko

- **Erref:** EIB-022/014
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:34:16. **Bukatu:** 00:35:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lurra belauniko garbitzen zuten harearekin. Lejiarekin espartzuz igurtzitzen zuten eta ondoren argizariz distira ateratzen zioten. Sukaldeko lurra egurrezkoa izaten zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com